

# Arrasate

P R E S S

2001.eko  
oktobararen 29a  
547. zenb.



NISSAN ALMERA TINO BERRIAK  
SUTAN JARRIKO ZAITU

2.665.000

NISSAN

ALP ARRASATE



*Datorren urtian gehiago eta hobeto*

# Edertasunaren Gida

**CARMEN**

**Ile apaindegia  
Solariuma**

Ferrerias, 50  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 03 63

*Jose Antonio*

GIZONEZKOEN  
ILE APAINDEGIA

Otalora lizentziatua, 22-behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 42 10

**SUSi**  
ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea  
Tel.: 943 79 50 27

**ILEA**

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

*Lurrindegia* *Perfumeria*

**ZARRAOA**

Kanpandorpea, 4  
Tel.: 943 79 12 19

- ▲ Larruzko artikuluak
- ▲ Bisuteria
- ▲ Opariak

*Aholkularitza  
estetika eta  
makilajea.*

LANCASTER

GUERLAIN

Elizabeth Arden

**JADE**  
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

**Miren Garai**

ESTETIKA ZENTRUA

LODITASUNA ETA BARIZEAK

- Zimurretako CO<sup>2</sup> lehenengo laserra (Barra-kodea)
- Ezpainen handitzea
- Liposukzioa edo liposkultura
- Bularren txikitzea eta handitzea
- Aurpegiko orbanak
- Gorputzerako LIPOFIT TAC tratamenduak
- Indarberritze tratamenduak
- Depilazioa argizari hotzez eta beroz
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegiaren garbiketa
- Makilajea
- Solariuma

*Aguinaga Doktorea (1.806)*

LASER BIDEZKO DEPILAZIOA MEDIKUAREKIN

Zarugalde 23, 2. ezk. Tel: 943 79 96 90

*ML*  
ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65

Hilero aterako dugu  
Edertasun Gida. Zure zerbitzuak  
iragarri nahi izanez gero,  
deitu 943 71 23 91 telefonora

*Lore*



Olarte, 10 • ARRASATE • Tel: 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

## urteurrenak

### Gureak-en tailer berria

■ 70. zenb.  
(1990-06-29)

Gureak tailer babestuak tailer berria ireki zuen Musakolako Bidekurtzetan, Asam lan-tegiari erositako lursailean. Inaugurazio ekitaldian, Jesus Mari Arrieta Jaurilaritzako Lan sailburua, Imanol Murua Gipuzkoako diputatu nagusia eta Arrasateko alkate Xabier Zubizarreta izan ziren. Lehenengo solairuan 50 lanpostu sortzeko asmoa zeukan Gureak-ek.



### Andaluzia Etxea irekita

■ 70. zenb.  
(1990-06-29)

Jende ugari hurbildu zen San Juan bezpera egunean Uriburu kaleko 12ra, Andaluziako Etxearen inauguraziora. Xabier Bengoa udaleko Kultura batzordeburuak eta Ramon Vega Euskal Herriko Andaluziako Etxeetako koordinatzaileak, besteak beste, esku hartu zuten ekitaldian. Huelvako gazte batek egun horretarako konposatutako fandangoa jo zuen eta, amaieran, Andaluziako ereserkia abestu zuten bildutakoek.

### Eskubaloia etorkizuna kolokan

■ 70. zenb.  
(1990-06-29)

Arrasate Kirolak eskubaloia taldeko zuzendaritza osatzen zuten zazpi lagunek bertan behera utzi zituzten euren karguak. Hutsunea betetzeko deialdia egin zuten, eta inor ez agertu ezean, taldea desagertzeko arriskutan izango litzateke. Bestalde, taldeak kirol alorrean emaitza eta maila altuak eskuratu zituen eta diruari zego-kionez ondo zegoen.

## besteek esana



Duela hamarkada bat, enpresaria adarrak eta buztana zituen arerioa zen askorentzat; etsaia ere bai. Zerbait aldatu da. Bestalde, horrekin lotuta, ekonomia kooperatiboak gurean beste inon ez bezalako garapena lortu izana kontuan hartzeko datua da. Enpresari isolatuaren irudi heroikoaren orde, gizarte zibilaren enpresa-ekimen komunitarioa. Independentzia pertsonalaren apologia baino, gizakien arteko interdependentziaren autokontzientzia. Izan ere, ez dugu heroirik behar. Aukeran, hiritar kritiko eta kontzientez osatutako gizarte zibil heldua».

Joseba Azkargorta  
SOZIOLOGOA, MUKO LANKI  
IKERKUNTZAKO KIDEA  
**EUSKALDUNON EGUNKARIA**  
(2001eko ekainaren 21a)

## aurkibidea

Pasa den asteko zenbakiaren azaleko marrazkiaren egilea, Mikel Arroibe da.

- Lehen begiratu . . . . . 3
- Asteko hitzorduak . . . . . 4
- Herritarren berbak . . . . . 5
- Astearren erreposao . . . . . 6
- Inkesta . . . . . 7
- Orain eta hemen . . . . . 8/9
- Txutxumutxuak . . . . . 10/11
- Etorri eta gelditu . . . . . 12
- San Juanak 2001 . . . 13/17
- Aurrez aurre . . . . . 18/19
- Kirolak jokoan . . . . . 20/21
- Beheko dendatik . . . . . 22
- Kulturaren txokoa . . . 23/24
- Uhinetan barrena . . . . . 25
- Foto zaharra . . . . . 26



Psa den astean San Cristobalen sua piztu eta bi hektarea erre ziren.



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otarola kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net  
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitateak:** Arantzazu Lagunilla, Natalia Martinez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Galtzarain, Ane Bereziar (Tel.: 943 71 23 90) **Disenatzailea:** Alex Azkarate. **Asteburuotako berriemaiak:** Lorea Agiriano. **Banaketaren ardura:** Naisara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## ZERBITZUAK

### Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Iguualtorioa . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) . . . . . 943 79 39 00  
(emakumeak) . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Delak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
asteburu eta  
jai egunetan . . . . . egun osoa  
Arrasate  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria . . . . . 943 03 52 50  
• Espesialitateak . . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak: . . . . . 943 03 53 11  
Aretxabaleta . . . . . 943 79 74 58  
Aramaio . . . . . 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

### Ertzaintza

Arrasate . . . . . 943 79 71 99

### Suhiltzailak

Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaila burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . . 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44  
. . . . . 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburategia

Monterron . . . . . 943 77 01 05

## MEZAK

### San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

### Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

### Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

## udaltzaingoa

Irailaren 17a bitartean Udaltzaingo zerbitzua 10:00etatik 14:00etara izango da zabalik.

## anbulatorioko udako ordutegia

Lehenengo mailako laguntza unitateak, hain da, ohiko kontsultak, arratsalde ere egin ahal izango dira ambulatorioan ekainaren 26tik aurrera. Hain zuzen ere, aurrerantzean, goizeko zerbitzuaz gainera, 13:00etatik

20:00etara bi sendagile, pediatria bat, bi erizain eta administrari bat izango dira arratsalde partean. Hortaz, gaixoei goiza zein arratsaldea aukeratu ahal izango dute.

## musika jaialdia

Ekainaren 29an, 19:30ean, Arrasate Musika-kalek antolatutako jaialdia egingo da Monterron parkean. Herriko hainbat taldek esku hartuko dute: Goikobalu, Arrasate Musika-

leko talde instrumentala, Arrostaitz dantza taldea, Tronbunba tronboi taldea eta Arrasateko Trikitilari Eskola.

## manolo quevedo

Manolo Quevedo margolari arrasatearraren *El pastel y la luz* erakusketa uztailaren 1a arte izango da zabalik Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Bisitaldi ordutegia honakoa da:

18:00etatik 20:00etara, eta zapatu eta domekan, gainera, 12:00etatik 14:00etara.

## koldo gojenola

Zabalik jarraitzen du Koldo Gojenola margolariaren olio erakusketak San Andresko

Toki Eder kafetegian.

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

### Egubakoitza, 29

- Zabala, Zarugalde

### Zapatua, 30

- Ruiz, Magdalena

### Domeka, 1

- Morales, Araba

### Astelehena, 2

- Azkoaga, Ferrerías

### Martitzena, 3

- Azkoaga, Iturriotz

### Eguaztena, 4

- Corcuera, Aranbarri

### Eguena, 5

- Irizar, Erguin

## epe bukaerak

Uztailaren 20a izango duzue Arrasateko Komiki Ez Sexisten lehiaketan esku hartzeko azken aukera, 14:00etan hain justu. Udaletxean utzi beharko dituzue zuen lanak. 100.000 pezetan emango dizkiote irabazleari. Bestalde, Gazteen Ekimenak argazki lehiaketan esku hartzeko epea urriaren 11n bukatuko da. Lehiaketa horretarako lanak ere udaletxean utzi beharko dituzue.



## Herritarren berbak

# Hauteskundeak lasaitu ondoren

Antxon Mendizabal / Irakaslea

Bai bakeari; bai elkarrizketari eta bai euskal herritarren erabakiari. Hiru baieztapen horiekin PNV-EA koalizioak ateratako emaitzak, EHtik joandako ia 80.000 botoak barne, gainditzen zuen PNV-EAren errekor historikoa. Eta bazeuden gehitzeko irakurketak. Bere burua abertzale ikusten duten PNV-

EA eta EH batera ezarrita, 743.361 botoek (%52,8) sumatu zuten Euskal Herriak irabazi eta Espainia inperialak galdu egin zuela. Eta, jakina, Lizarrako sinatzaileak kontuan hartuko bage-nitu, PNV-EA, EH eta IUren multzoak, 826.223 boto (%58,4) batuta, euskalgatazkaren irtenbide demokratikoaren alde sumatuz, Ermuko indarrak erraz gaindituko lituzke. Aukera historikoa eta ardura historikoa, hortaz.

Baina hemen demokraziaren diskurtsoa errealitate birtualean dago eta demokraziaren eza gure egunerotasunean txertatzen da. Espainolstek irabazi izango balute demokraziaren paradisuan egongo ginake, baina Euskal Herriaren aldekoek irabazi zuten, eszenatoki politikoa tankeen zurrumurruek hornitzen dute. Hemen, hautesleek ezin dute "politika propioa" bideratu. Euskal herritarrek aurrean daukagu betiko leizea, gure arazo estrukturala. Hain zuzen ere, ezin ihes egi-

tea.

Eta demokrazia gabeko errealitate hone-tan Ibarretzek ez digu erakusten askapene-rako bidean herri baten gidariaren maila due-nik. Aitzitik, are gehiago, enpresako exeku-tibokudeatzailea, dagoenaren gestorea, ema-ten du. II. Mundu Gerraren iru-

diak eskuratuz, nire lagun Jus-to de la Cueva soziolo-goak dioen moduan:

PNV-EAkoek Estal-ingradeko garaipena Dunkerkeko honda-men bihur dezakete. Estalingrad, nazien aurka aliatuek lortu-tako oso garaipen garrantzitsua eta oso ondo aprobetxatua izan zen.

Dunkerke, aliatuen aurka naziek

lortutako garaipen garrantzitsua izan zen, gerora hondamen politiko bihurtu zena. Eta, horrela, Euskal Herriaren garaipen demo-kratiko garrantzitsua espainiar nazioalismo-aren garaipen politiko bihurtzen ari da

Hauteskundeetatik hilabete igaro ondo-ren, gure eskubide demokratiko eta naziona-len ukapena berdina agertzen zaigu eta Arra-saten eta Aramaion oso maitatuak diren Txus, Premin, Nañale, Nerea, Aitor, Iban eta Gor-karen aurkako atxilotetek, agintarien alda-rrikapen miserableek, tortura posibleek eta manipulazio mediatikoez demagogia eta demokrazia birtualetik esnatzen gaituzte.

**“Hemen demokraziaren diskurtsoa errealitate birtualean dago eta demokraziaren eza gure egunerotasunean txertatzen da”**



## aste gazte

### ■ DIRULAGUNTZAK

• Zestoako Udalak herri har-tako hizkera eta kultura ondare-aren gaineko ikerketa egiteko beka antolatu du. Epea: ekainak 30.

• Eusko Jaurlaritzaren esku-tik, Barne Merkataritzako ahol-kulari teknikoak prestatzeko diru-laguntzak. Epea: uztailak 2.

• Eusko Jaurlaritzak nekaza-ritzan eta arrantzan ikerkuntzan hasteko dirulaguntzak aurrez iku-si ditu. Epea: uztailak 4.

### ■ UDAKO UNIBERTSITATEAK

• Udako Euskal Unibertsita-teak antolatuta, Biarritzen eta Iru-ñean uztailean egingo diren ikas-taroen berri jaso dugu.

### ■ IKASTAROAK

• Arrasateko Udaleko Gazte-ria Sailak hainbat ikastaro anto-latu ditu uztaileko: arkeologia tailerra, irrati tailerra, argazki-gintza eta gaur egungo dantza.

• Aukea kirol erakundeak uda-ko kanpaina antolatu du: aerobi-ca, arku tiroketa, eskalada, gol-fa, mendi bizikleta, natura jar-duerak, patinajea, esku pilota, squash eta tenisa. Ikastaroak bi txandatan egingo dira: ekainaren 27tik uztailearen 10era edo uzta-ilearen 11tik 24ra.

### ■ LEHIAKETAK

• Gaztemaniak V. maketa lehiaketa. Gipuzkoako musika-riendako deialdia, betiere disko-etxeren batekin argitaratutako dis-korik ez badute. Epea: ekainak 30.

• Arrasateko Emakume Sailak antolatuta, Komiki ez sexisten IV. lehiaketa. Formatu bertikala, 2-4 orri bitarteko luzera, zuri-beltze-an edo koloretan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: uztailak 20.

Argibideak:

**GAZTE ZERBITZUA**

943 77 00 65

## USTEAK USTE

### Nostalgia baino gehiago

**S**an Juanak datorren urte arte joan dira eta hauen hutsunea nabaritu baino, jaiek zer utzi diguten edo zer probetxu atera diegun aztertzeo unea da. Ohitura denez, aurten ere askok herritik alde egin dute, oporretara, lantokietan jai eman dietela aprobetxatuta. Kanpotarrak, ordea, asteburu gauean besterik ez dira etorri taberna zuloetara. Bestalde, egunetz jaietan iaz baino jende gehiago ibili ei da, guraso, seme-alaba eta nagusiak batez ere. Baina baita koadrilak ere. Oso fin aritu dira koadrilak aurtengo jaietan eta etengabeko presentzia izan dute kalean; batetik, euren ekinzaz aurrera eramaten eta bestetik, egitarau orokorrean parte hartzen. Bide horretatik jarraituz gero, dezente alda dezakete jailetako giroa, egin duten ahalegina oso handia izan da eta. Seguruenik, gelditzen garenok kalera ahal beste irten eta giro ona jartzea da daukagun aukera. Kanpora alde egiten dutenek eurek ikusiko dute, eta agian, giroa hobetz badoa birritan pentsatuko dute hurrengoan.

Iker Barandiaran

## astea bi hitzetan

### ■ Web orria

Udalak Mondragoeren gaineko web orri berria diseinatzea erabaki du. Informazio gehiago eskaintzea da udalaren asmoa, eta orriaren beraren itxura ere askoz ere modernoagoa izango da. Besteak beste, hortxe jaso ahal izango ditugu herriko informazio orokorra, udalbatzarraren erabakiak, deialdi publikoak, baita lan eskaintzak ere. Danka etxe-ari eman dio udalak lan hori, aurreko aldian egin zuen moduan.

### ■ Ebakuazio simulazioa

Fagor Garagartzaren larrialdietarako planaren barruan, joan den eguaztenean eba-

kuazio simulazioa egin zuten 1.700 langile inguruk. Larrialdi egoeran egin beharrekoa entseatu zuten; izan ere, orain dela urtebete inguru Fagor Garagartzan larrialdietarako plana prestatzen hasi ziren. Plan horren helburua da Garagartzako lan-tegian gerta daitezkeen istripuek pertsonengan, ingurumenean eta instalazioetan eragin ditzaketen kalteak ahal den neurrian txikiagotzea. Hiru ezaugarri ditu larrialdi planak: segurtasunerako antolaketak, prebentzio arauak eta larrialdietarako jarraibideak. Eta, hain justu, azken horixe entseatu zuten lehenengo aldiz, larrialdietarako jarrai-

bideak alegia.

### ■ MCC atzerrira

MCCko Maier eta Solac enpresak albiste izan dira egunotan; izan ere, Maier gernikarrak lantokia irekiko du Erresuma Batuan, Birmingham hiritik oso gertu. Laurogeita bost bat lagunek egingo dute lan, eta aurten 2.200 milioi fakturatzea espero dute.

Solac gasteiztarrak, berriz, dirua jasoko du enpresa sendotzeko. Etxetresna teknikoak egiten dituzten taldeak eta azken urtean bere egoera asko hobetu da. 4.250 milioiko diru sarrera onartu eta aurten 6.000 milioi fakturatzea espero du.

### ■ Sutea San Cristobalen

Egueneko gaueko hamaikak baino lehentzuago sua piztu zen San Kristobal mendian. Indarra hartu eta berehala zabaldu zen. Herri osotik ikus zitezkeen garrak. Une larrienak suak errepidea gurutzatu zuenean izan ziren; izan ere, ondoan zegoen baserri bat hustu egin behar izan zuten. Suhiltzaileek goizaldeko ordu bietarako menderatuta zuten sua, baina bost eta erdiak inguruan berriro ere piztu zen eta suhiltzaileak berriro ere joan behar izan ziren. Edozelan ere, guztira bi hektarea baso erre ziren sutearen ondorioz eta, zorienez, ez zen zauriturik izan.

Jose Mari Urizarrek udaleko Zerbitzu eta Auzo batzordeburuak adierazi zuen era-



gindako sutea izan zela edo, behintzat, horixe erakutsi zuten aurkitutako aztarnek.


**UGARAN**  
jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**  
**MEMESA**  
Industria hornidurak  
Tel. 943 71 24 25

**HIES**  
**BERRI**  
Tel.: 943 79 26 99

# Zer deitxazu automobillek polikixago juen daixien jarrittako koskei?

*Herrixen koska ugari jarri daue automobillek polikixago juen daixien*



**Iñaki Lizarralde**  
(Langillie)

Oso ondo deitxat, jendiek errespetetan badittu, behintzet, bai.



**Antxon Ansuategi**  
(Jubilaue)

Gogorregitek die, kalte egitten dotse automobillari. Nere ustez beste zerbait ibilli biherko litzake, horreik koskok min haundixe egitten dotse-eta automobillari.



**Raquel Josa**  
(Dendarixe)

Oso ondo, dendan jende askok komentau dau oso ondo dagoela horreik koskok jartie. Denda aurrien be jarri biherko leukie beste bat umiendako...



**Manolo Ruiz**  
(Langillie)

Nere ustez ondo dagoz oiñezkuek lasaixago ibiltteko, baiñe gutxien espero dozun lekuen jarten dittuzte eta susto ederra hartu zeinke; neuri, behintzet, hori gertatu jat...



**María Martínez**  
(Langillie)

Ondo deitxat, baiñe uste dot salto haundixague ematen dala. Polikixago jueteko zerbait jartia ondo dago, baiñe suabiagoen izen biherko litzake.



**Eva González**  
(Langillie)

Oso ondo, automobille herri-  
ra polikixago sartzeko.



**Bego Arregi**  
(Langillie)

Onea izengo litzake holakorik biher ez izetie. Danok kontziente izengo bagitze herri barrura sartzeko poliki juen biher dogula.



**Alejandro Brujas**  
(Ikaslie)

Uste dot haundixegixek diela; horrein erdixek nahikue izengo litzakez eragin bera lortzeko.

ANCEPE

homologatutako diploma

## DAMKAR'T

ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA ESKOLA

Irakaskuntza kalitatea

Lanaren ateak zabaltzen dizkizugu

**EIBAR** Tel.: 943 12 15 18 / 943 12 71 52

Matrikula epea zabalik

**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizenziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

# Suspertu ezean nekazaritza desagertu egingo da

Herriko nekazaritza jarduerak behera egin du nabarmen azken urteetan. Halaxe jakinarazi du udaleko Enplegu eta Garapen batzordeak. Industrializazioak eraginda, nekazaritza jarduera bigarren mailara igaro zen. Hori erakusten dute, behintzat, herriko nekazaritza zelan dagoen jakiteko ikerketaren emaitzek.

Zera ondorioztatu dute, "borondaterik badago, posible izango dela nekazaritza suspertzea; bestela desagertu egingo da".

## PINUA LANDATZEA

Bost hilabetez jardun du Tomas Madinabeitia nekazaritza ingeniari aretxabaletarrak lana egiten. Eta, ikusitakoaren arabera, herrian dauden nekazaritza jarduera gehienak txikiak dira eta espezializazio bakoak, gainera. Hau da, nekazarien %90ek base-



errian ez eze, kanpoan ere lan egiten dute, batez ere industrian. Horrek nekazaritza estentsiboa ekarri du, hau da, basoetan landatzea eta okelatarako ganadua haztea.

Baserritarrek, oro har, pinua landatzearen aldeko apustua egin dute eta esnetarako behiak baino nahiago dituzte okelatarakoak.

## HAMAHIRU NEKAZARI

Horrez gainera, ikerketak erakutsi du gaur egun Mondragoen hamahiru nekazari profesional soilik daudela, eta horiekin berbetan ibili da Tomas Madinabeitia. Besteak beste, udalaren eta baserritarren arteko hartu-emanak ez direla onak ondorioztatu du. Baserritarren ustetan, udalak

beste lehentasun batzuk ditu. Halaber, azoka plazara joaten diren baserritarrek ere kexu dira azokako salmentak azken urteotan %20 jaitsi direlako. Geroago eta jende gutxiago joaten da azokara erosketak egitera eta erosle gazterik ia ez da ikusten. Gauza bera gertatzen da saltzaileekin: "Egoera larria da. Azpiegitura arazoak ez eze, oinarrizko arazoak den baserritarren eta erosleen zahartzea ere bizi du (61.3 urte da baserritarren batez beste-ko adina)".


Hori guztia kontuan hartuta, Juan Ramon Garai Enplegu eta Garapen batzordeburuak adierazi du udalak sendotu gura duela udalaren eta baserritarren arteko harremana eta baserritarrentzako laguntzak badaudela jakinarazi du. Bestalde, argitu du azoka beste leku batean egitea ere aztertzen ari direla.

# Erakusketa industrialerako egoitza egokituko dute

Cerrajerako erdiko eraikinen bigarren solairua egokitzeko ia bost milioi pezetako aurrekontua onartu du udalak. Ondorioz, erakusketa industrialera antolatzen aurrera segitzen du. Aldi baterako izango da, hiru bat urterako-edo; betiere, Industria museoa antolatuta bitartean. Helburua da, museoa egiten den artean, orain arte egindako lanari etekina ateratzea.

## GARAPENA

Denetarik erakusteko asmoa dute erakusketa industrialean. Halaxe adierazi digu, behintzat, Isabel Aramendia erakusketako arduradunak: argazkiak, dokumentuak, UCEMen produktuak eta kooperatibek egindako lanak.



## Irudiotakoa moduko makinak erakutsiko dituzte

Material asko Lasa pabilioian dago gordeta, eta beste asko udalak Jose Luis Iñarra kalean duen biltegian. Izan ere, aspalditik ari dira egitasmo horretan lanean, 1994tik hona, hain justu; eta badute bai

zer erakutsi. Hori bai, ahalik eta ondare industrial gehien eskuratzea nahi dute eta horretarako herritarren partaidetza behar dute. Industriarekin lotutako edozein material onartuko dute.

Asmoa da, oro har, industriak Mondragoen izandako garapena erakustea: burdinolatetik lantegi txikietara eta hortik lantegi handietara emandako pausoak. Adibidez, UCEM zelan jaio zen, izan zuen garrantzia eta zela Mondragoeko bizitza horren inguruan eratu zen.


Kooperatibak eta teknologia berriak ere jorratuko dituzte, bukatzeko. Eta, oraingoz, erakusketarako ziurtatuta dagoen gauza bakarra da Bixente Barandiaran eskulangilearen tailerra hantxe izango dela. Udalak hitzarmena sinatu du artisauarekin horretarako. Horrekin batera, bideo bat ere egingo du burdingintza eskulan moduan erakusteko.



## Istiluak jaietan

Sanjuan astelehenean istiluak izan ziren herrian. Ezezagun batzuek Erdiko Kaleko, Ferriariako eta Iturriotzeko zenbait dendatako erakusleihoak apurtu zituzten: besteak beste, Ostantz tabernakoak eta Landaluze harategiko kristalak.

Ertzaintzak adierazi zuen istiluak goizaldeko 04:30ak aldera hasi zirela. Dei bat jaso zuten komisarian, gazte bat kristalak apurtzen ari zela esanez. Ertzaintzak 05:00ak aldera irten ziren kalera eta istiluak



izan ziren Ertzaintzaren eta gazteen artean. Lekukoen arabera, txosnetan kargatu zuten

ertzaintzek eta taberna batera ere sartu ziren. Edozelan ere, ez zen atxiloturik izan.

## Atzerriko ikastaroak egiteko orduan kontuan hartu beharreko gomendioak



Uda iritsi da eta geroago eta familia gehiagok euren seme-alabak atzerrira bidaltzeko aprobetxatzen dute. Jeneralean, esperientzia onak izaten dira, baina batzuetan haserreak ere. Hori dela eta, Euskal Kontsumitzaileen Antolaketa (EKA) arazoak saihesteko gomendio batzuk eman ditu: informazioa jasotzea da egin beharreko lehenengo gauza,

ahalik eta informazio gehien; hori egitean, bereziki ikastegiaren kalitatea kontuan hartu behar da, baita mota horretako ikastaroen izaten dituzten ohiko baldintzak errespetatzen direla ere.

### BIZITOKIA

Bizitzeko lekuari dagokionez, bi aukera daude: bata, ikaslea familiaren batekin bizitzea eta

bestea, ikasle-egoitza batera joatea. Adituen ustetan, hobe da familia aukeratzea, ikasle egoitzetan askoz ere errazagoa baita hizkuntza bereko ikasleak aurkitzea eta, orduan, gutxiago erabiltzen dute ikasten ari diren hizkuntza. Era berean, besteak beste, ikasle-ari aseguru egitea gomendatzen du EKAK. Ospitaleko gastuak, mailetak, etxera itzultzea... sartzen dira aseguru horren barruan eta ikasle bakoitzeko bana egin behar da. Bukatzeko, behin bidaia aukeratu, enpresa legearen arabera antolatuta dagoela egiaztatzea komeni da, baita enpresa horrek atzerrian duen azpiegitura ere; eta hori guztiori ondo badago, idatzizko kontratua eskatu behar da.

## Natale Landa aske

Joan den egubakoitzean aske utzi zuten Natale Landa Garzón epailearen aurrean deklaratu eta gero. Bost milioi pezetako fidantza ipini zion epaileak aske geratzeko.

Natale Landa ekainaren 14an atxilotu zuen Espainiako Poliziak, Mondragoeko eta Aramaioko beste sei lagunekin batera. ETAKide izateaz akusatatu zuen Luis del Olmo epaileak, gainerako beste sei lagunak moduan. Gero, akusazio horretatik libre utzi zuen, baina Garzón epaileak EKIN taldeko kide izateagatik kartzelaratu zuen. Egubakoitzean deklaratu zuen eta Garzonek aske utzi zuen.

Egubakoitzean 01:00ak aldera iritsi zen herrira eta orduantxe egin zioten senide-ek eta lagunak ongietorria.

## Anbulatorioko udako ordutegia

Lehenengo mailako laguntza unitateak, hau da, ohiko kontsultak, arratsalde ere egin ahal izango dira ambulatorioan ekainaren 26tik aurrera. Hain zuzen ere, aurrerantzean, goizeko zerbitzuak gainera, 13:00etatik 20:00etara bi sendagile, pediatra bat, bi erizain eta administrari bat izango dira arratsalde partean. Hortaz, gaixoek goiza zein arratsaldea aukeratu ahal izango dute.

### S. CARRASCAL S.L.

#### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

#### Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

### TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferriari, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

## GORKA

ILEAPAINDEGIA

Ferriari, 35 ARRASATE Tel.: 943 77 13 78

**ORDUTEGIA:**  
Astelehenean itxita.  
Asteartetik ostiralera:  
09:30 - 20:00  
Larunbatetan:  
08:00 - 14:00

SOLARIUMA



## HURRENGOAN, TOURRERA!

Hona hemen Sergio, Cesar Jesus, Anton, Roman eta Piti lagunak, izugarrizko malda igo eta gero. Tourmalet mitikoa igo zuten, ez da gutxi! Luz Ardiden-en gora egin zuten goizean goiz eta Luz St.-Sauveur herrira jaitsi eta gero, Tourmaleti ekin zioten. Etapa polita. Hurrengoan, Tourrera guztiak!



## ZAHAR-BERRIREN TRIKI POTEOA

Zahar-Berrikoek bazuten, bai, triki poteoan hain alai jarduteko arrazoirik: hirugarren ikasturtearen amaiera ospatzeko modua izan zen. Jarraian, euskaldun zaharrak eta berriak afaritara joan ziren, eta bertso bidez eman zioten eskerrak elkarri.



## ZORIONAK, ZURIÑE!

Zuriñe Pagaldaik 15 urte egin zituen ekainaren 22an, eta koadrilakoek honela zoriondu gura izan dute. Gainera, mezua bidali gura dizute: "Zuriñe, ea laster mutil-laguna topatzen duzun, eta Pirinioetarako izango duzula". Tira, bada, zorionak gure partetik ere!




## AUTOA, ERDI-ERDIAN

Aparkaleku bila ari ote zen? Ala eguzkiak itsututa bidetik irten zen gidaria? Kontua da biribilean amaitu zutela autoak eta gidariak, eskuman agertzen den emakumeak. Seinaleak ere deskuiduaren bere zatia ordaindu behar izan zuen. Udaltzaingoa laster batean agertu zen aparkamendu bitxi horren berri jakiteko asmoz.

## MAIARREN ORDEZKARIA

Arrasate Press eta Arrasate Irratia bisitatzen izan genuen Hernan, Yucatango penintsulatik etorria. Maiar indigenez osatutako bi kooperatibaren kide da. Baina, gainera, maiar hizkuntzetan emititzen duen irratia ere badute, eta hemengo esperientziaren berri izan gura zuen. Ongi etorri!





## AUPA SAN JUANETAKO DANBORRADATXOIA!

San Juanetako danborradatxoa egin zuten Arizmendiko ikasle hauek joan den eguenean. Arropa koloretsuak soinean ipini eta plan! Ra ta plan! Aritu ziren gogoz eta kemenez. Argazkian ez dira agertzen, baina begira zeuden aita-amek umek bezain ondo pasa zuten. Edo hobeto.



## EZ DIRA HAIN BELDURGARRIAK!

Arrasateko buruhandien historia ikasi ondoren, buruhandien gordelekura joan ziren bost eta sei urteko San Vitorreko ikasleak. Beldurgarriena inkisidorea iruditu zitzaizen arren, San Juanetan lasaia ibiliko dira eurekin jolasean.

## 400 UME MONTERRON PARKEAN!

Umezaintzakoek bukatu dute ikasturtea, eta diploma banaketa eta musika jaialdia egin zituzten joan den martitzenean Monterronen. 400 ume inguru batu ziren; gaitza zen, hortaz, guztiak argazki honetan kabitzea, baina batzu-batzuk, behintzat, atera ditugu.



## KAIETANA AMAGINARREBA

Ez, Kaietana de Otadui Urtubi maitea: ez zara zure seme Xabi baino gutxiago izango. Hark agur-afaria izan bazuen lankideen eskutik, zuk ere merezi duzu: amaginarreba izango zarenez, ez-amaginarrebatasunaren agur ederra egin zizuten. Zorionak, bada, zure lankide guztien eta gure partetik ere!



*Mari Jose*  
Gora San Joanak!  
**OINETAKOAK**  
Erdiko kale, 20 • ARRASATE  
Tel.: 943 - 79 22 98

**W** **KONTRATAK**  
**IRYROK S.L.**  
**ERAIKUNTZAK**  
Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 245  
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14  
ARRASATE

*Lore*  
• Lurrindegia • Kabina •  
• Fotodepilazioa •  
Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

## Noiz heldu zinen Arrasatera? Zeren bila?

1994an CIMen lanean hasi nintzen, eta hortik aurrera bizitza soziala egin beharra neukan.

## Zer iruditu zitzaizun Arrasate hasiera batean?

Donostian nengoela, gurasoak bisitan etorri zitzaizkidan eta Arrasatera lagundu ninduten, CIMeko azterketa egin behar nuen eta. Arrasate ikusi bezain laster, arrebak zera esan zidan: "Ez ezazu hau Donostiagatik aldatu".

## Zer daukate Donostiak eta Gasteizek Arrasatek ez daukanik?

Ni kostaldean jaio nintzen eta itsasoa maite dut. Hemen, ibarrean, zeruari begiratu behar diogu. Gasteizen, berriz, bizitza sozial eta kultural handia dago.

## Eta Arrasatek zer eskaintzen dizu?

Herrian zehar oinez ibiltzen naiz, eta hori luxua da. Herri honen ezaugarri garrantzitsu bat era guztietako elkarteak eratzeko dagoen joera da. Oso aberasgarria da.

## Zure burua arrasateartzat daukazu?

Hemen maitasuna eta lagunak topatu ditut, baina oraindik ere giria naiz. Hizkuntzak eta betidanik koadrilarik ez edukitzeak hemengoa ez naizela gogorarazten didate. Hala ere, pozik nago hemen.

## Gaztelaniaz badakizu, baina euskaraz ez. Ikasteko asmorik?

Izugarri gustatuko litzaidake, benetan, eta zerbait egin beharra daukat, baina egun osoa alemanez nor-nori-nork ibili ondoren, aisialdian beste zerbait egin gura izaten dut. Euskarara berehala ikasteko pila egongo balitz...

## Eskolatik kanpo alemanez



## Dirk Morenweiser

**Dirkek zazpi urte daramatza Arrasaten lanean. Jatorriz alemaniarra bada ere, Euskal Herria aspalditik ezagutzen du eta aurrez Gasteiz eta Donostian bizi izan da. Gustura bizi da hemen eta jende ugari ezagutzen du.**

Hizkuntzak eta betidanik  
hemen koadrilarik ez  
edukitzeak, giria naizela  
gogorarazten didate.  
Hala ere, maitasuna eta  
lagunak topatu ditut  
hemen.

## berba egiteko aukerarik badaukazu?

Neskalagunak eta biok alemanez berba egiten dugu, errieta egiten didanean izan ezik. Senitartekoekin eta lagunekin telefonoz berba egiten dut. Kalean gaztelaniaz berba egin arren, euskarara ulertzen saiatzen naiz, baina ez dut askorik lortzen.

## Alemaniarra sarri joaten zara?

Urtean behin edo birritan. Hangoek ere noizbait bisitatzen naute eta herrialde hau eta hemengo kultura erakusteko irrikatan egoten naiz.

## Zer iruditzen zaizkizu hemengo ohiturak? Zeintzuk dituzte gustukoak? Eta alderantziz?

Jende gaztea etxetik ez joatea eta gurasoek ez bidaltzeak asko harritzen nau. Nork bere bizitza antolatzea ezinbestekoa da. Kaleak oso zikin daudela uste dut, baina jendea ez dio axola. Gidariak ez dituzte oinezkoak ezta zebrabideak errespetatzen ere. Baina beste lurralde industrializatuetan ez bezala, biltzeko joera handia dago; halaber, solidaritate handia dago. Hori miresgarria da.

## Zer iruditzen zaizkizu bailarako erreferente diren kooperatibak?

Munduan parekorik gabeko esperientzia da, baina globalizazioaren eta merkatuaren bidegabekeriaren ondorioz arau horiek onartu eta oinarizko ideia batzuk galtzen ari direla dirudi: hala nola esku hartzea, barneko demokrazia eta informazioa. Gazte askok ez dute kooperatiba eta erakunde anonimo bat bereizten. Pena da.

## Nori egingo zenioke elkarriketa hau?

Luke Skywalkerri.

ekainak **23** zapatua

## KOADRILAK INDARTSU

Aspaldian baino koadrila gehiago batu dira jaietan; izan ere, zapatuan 180 bat gaztek bazkaldu eta makala ziztu batean eraman zuten herriko plazaraino. Eta makala jaso zutenetik jaietara bukaera arte, etengabe izan ditugu gazteak kalean egun eta gauak giroten. Aupa zuek!!

## ERREMENTARI DANTZA

Herriko kultura talde guztien lanari esker, sanjuanetako ekitaldi interesgarrienetakoa den Errementari dantzak herritar asko bildu zituen beste behin. Tradizioa, musika, dantza eta ikuskinak suaren berotasunarekin bat egin zuten gau berezi hartan.

## ZAZPI KONPAINIA DANBORRADAN

SUDCen eskutik, herriko 250 emakume eta gizonek nagusien danborradako zazpi konpainiatan banatuta desfilatu zuten herriko kaleetan. Ohiko errepertorioa eskaini zuten ibilbidean zein herriko plazako ekitaldi nagusian.




MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

ere

**JAIETAN**  
JAIETAN  
JAIETAN

egotea gustatzen zaigu

"JAI ZORIONTSUAK, ARRASATE"



[www.muni.es](http://www.muni.es)

Tel. 943 71 21 85

**m**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA



## NAGUSIEI OMENALDIA

Laurogei urtetik gorakoek omenaldi hunkigarria jaso zuten Aba-roako egoitzan. Aurtengo nagusienak Cándido Moraleja eta Brígida Monje izan dira, eta txapela eta lore sorta jaso zuten udalaren eskutik. Zorionak bie!

## ... ETA KARIBEKOAK

Kubako Son Caliente taldea etorri zen Arrasatera, eta ondo sumatu genuen Karibe aldeko berotasuna, bai horixe! Cumbia, mambo, txa-txa-txa eta bestelako estiloekin dantzarazi ziguten kubarrek... eta haiek ere Arrasateko ohiturekin ondo baino hobeto pasa zuten!

## DRAGOI TXULETAK

Urtero legez, izugarrizko jende mordoak elkartu zen dragoi txuleta mamitsuak dastatzeko. Sabela betetzeaz gainera, entzumena ere ondo gozatzeko aukera izan zuten, afalosteko musika saioei esker.



# JOMA

DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK, GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...

**JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A**  
**Gipuzkoa Etorbidea, 32**  
**20500 ARRASATE**



# ekainak 25 astelehena

## GAUEKO DOINUAK

Gaua Etzakit taldeak eta Mikel Urdangarinek girotu zuten. Batzuekin dantza egiteko modua izan genuen eta bestearekin, lasai-lasai, eguneko parranda eta gero atseden hartzeko aukera.



## EGUZKILARU

Eguzkilaru iritsi zen, eta ondo igarri genuen, bai, haren beroa! Baina alaitasuna eta jolasa ere ekarri zituen Zaldibarrera. Horrez gainera, dantzaldiak izan ziren, baita Txatxiartisten eta Txatxilion.kom-eko estralurtarren emanaldiak ere.



## BAZKARIA ETA KIROLA


Gaztetxekoek bazkaria egin zuten. Segidan, gorputza larregi ez nagitzeko, Herri Olinpiadak egin zituzten -asto jaurtiketa, zaku lasterketa eta abar-; eta, azkenik, txikiteoa txarangarekin.



CAD/CAM



Prototipoak



Kontrol utilak



**EKIDE S.L**

San Andres auzoa, 2. 4A pab.  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 43  
Faxa: 943 71 21 43  
e-mail: ekide@sarenet.es

*San Juan jaiak  
pasa ostean eta gure  
10. urteurrenean,  
mila esker!!*



## KALERIK KALE

Erraldoiek, kiliek eta gaiteroek esnatu gintuzten martitzen goizean. Ume eta nagusi dezente irten zen haiekin kalejiran ibiltzera. Gero, txarangak eta trikitalariek jarraitu zuten goiz partea alaitzen.



## HERRIKO PILOTARIAK...

Profesionalek jende mordo erakarri zuten, baina herrikoak ez ziren atzean geratu, ez horixe! Sekulako ikusle piloak elkartu zen Uarkapen. Langak Pirauri irabazi zion, eta Agirre eta Ikutixo nagusitu ziren Beitia eta Itrasiegiren aurka.



## ...ETA HERRIKO ROCKEROAK

Eta arratsaldean Arrasateko kirolariak izan baziren protagonista, gau partean ere herriko rock musikagileak izan ziren jaun eta jabe. Des-kontrol, Fase Terminal eta Arkada Social taldeek jo zuten txosnagunean. Entzuteko ez ezik, ikusteko saio paregabea egin zuten.



**Aurrezkia Aseguru bat kontratatzen duzunean, berez, zuretzat lan egiten duten milaka pertsona kontratatzen ari zara.**

Bidaia bat, zure seme-alabentzako Master bat atzerrian. Denok dugu ametsen bat. Eta zureak ere egia bihur daitezten ahalegintzen gara.

**Lagun Aro Aseguruetan** pertsonak aurkituko dituzulako. Entzun, ulertu eta lagunduko dizuten pertsonak.

Hasieratik ohartuko zara zuretzat lan egiten dugula. Zure ametsen neurriko aseguru bat diseinatuko dizugulako. Kontuan izanik zure etxea, zure egoera eta zure premiak. Behar duzun erantzuna emanez. Uste dugulako aseguruetan gauzak modu batean bakarrik egin daitezkeela; ongi eginez.

Grupo Caja Laboral  
Euskadiko Kutxa Taldekoa



**SEGUROS LAGUN ARO  
ASEGURUAK**

Erantzuten duen aseguru

Etxea • Istripuak • Bizitza • Automobila • Aurrezkia Iturriotz, 27. 1a • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 77. Faxe: 943 79 75 88



## MIKEL URDANGARIN

### ABESLARIA

- Mondragoera etortzeko gogoa ei zeneukan, bereziki, Monterronen jotzeko?

- Bai, paraje honetan jotzeko gogoa neukan lehendik ere, eta Monterron ikusi eta gero, oraindik gogo handiagoa. Nahiko leku aproposa da edozein kontzertu mota egiteko eta uste dut leku horrek nire musika aterpe dezakeela. Leku zoragarria da.

- Nondik ateratzen duzu horrenbeste jenderi gustatzen zaion musika hori egiteko inspirazioa?

- Egia esan kantuak egiten dira egiten direlako eta idazten duzu idazten duzulako. Galdera horri erantzuten hastean konturatu zara edozein erantzun hanka motz geratzen dela. Nik, zorionez, biak nahiko natural egiten ditut, letrak zein musika konposatu. Baina ez dakit nondik ateratzen den inspirazioa. Pentsatzen dut hor barruan har bat dagoela eta hark agintzen duela eta guk kasu egiten diogula; edo aldrebes, guk behartzen dugu bera...

- Zelan definituko zenuke zeure burua?

- Nik nahiko pertsona arruntzat daukat neure burua. Pertsona arrunta neure bertuteekin eta neure hutsuneekin. Pertsonak bietatik ditu: gauza onak eta gauza txarrak, eta nik ere bietatik ditut, guztiok moduan. Lehenengo saiatzen naiz neure buruari gustatzen, eta hori egin eta gero besteei gustatuz gero, bada... poz bikoitza.



## LUIS FERNANDEZ

### SON CALIENTEKO ZUZENDARIA

Domekan, La Habanako Son Caliente taldea Dragoi janean eta gero Monterron parkean aritu zen jendaurrean.

- Zeintzuk zarete Son Caliente?

- Son Caliente La Habanako talde bat da. Kubako musika tradizionala eta musika latinoan lantzen ditugu, baita merengea, batxata, txa-txa-txa, guaratxa, son eta beste batzuk ere. Bederatzi musikarik eta hiru dantzarik osatzen dute taldea.

- Nolatan etorri zarete?

- Solidaritateko bira baten barruan etorri gara Euskal Herrira. Horrela, La Habanako gobernuak Gipuzkoako gobernuari eskerrak ematen dizkio.

- Euskal Herrira etortzen zareten lehenengo aldia da?

- Iaz, hiru hilabetez Euskal Herrian aritu ginen eta jasotako harreraren ondorioz aurten errepikatzea erabaki dugu. Zerbait lekutan bigarrenagoz izango gara, baina beste asko berriak izango dira guretako.

- Nolakoak dira zuen ikuskizunak?

- Gure ikuskizunetan dantzaren eta musikaren arteko fusioa egiten dugu, Kubako eta beste herrialde batzuetako dantzak nola dantzatzen diren erakusteko. Eta edonor gurekin dantzatzera gonbidatzen dugu.



## CANDIDO MORALEJA

### ERRETIRATUA

Erretiratu omenaldia egin aurretik, Cándido Moralejak bazekien aurten ere alkateak txapela oparituko ziola; izan ere, Arrasaten bizi den gizon zaharrena da. Cuencan jaio zen eta urriaren 3an 101 urte egingo ditu. Emakume nagusiena, berriz, 95 urte dituen Brígida Monje da. Biak ere osasuntsu eta sasoitsu ikusi genituen.



- Zein da hain ondo egoteko sekretua?

- Ez daukat inolako sekreturik. Egia esan, nik neure burua zaindu baino, senitartekoek zaintzen naute, Musakolakoek eta Santa Teresakoek, nire alabek eta errainak.

- Aspaldi etorri zinen Euskal Herrira?

- Soldadutza egitera Donostiara etorri nintzen, eta handik Guadalupeko fortera, Hondarribiara, bidali ninduten. Gerora, gerra ere bizi izan nuen eta hemen geratu nintzen.

- Txapel ugari daukazula entzun dugu?

- Bai, hala da, azkeneko urteetan txapel ugari eman didate eta senideei zein mojei oparitzen diet.

- Non bizi zara, Iturbide Egoitzan?

- Ez, ez. Musakolan bizi naiz, semeekin.



ARRASATE

GARBIKETAK S. COOP.

Uribarri, 20 ARRASATE  
Tel. eta Faxes: 943 79 70 39



ARRASATE

AUTOZERBITZUA

Uribarri, 20 ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 76



# Marivi

LORADENDA

Alfonso X jakintsua 5  
(Grupo San Juanen) • ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 59 / 943 78 81 54

Koroak, ezkontzarako edo  
momentu berezietarako  
lore sortak.

# ESTI LOITI (FUTBOLARIA ETA ENTRENATZAILEA)

## « Oraindik ere bultzada handi

Mondragoen jaio zen Esti Loiti, Garagartzan hain justu, orain dela 31 urte, eta txikitatik gustatu izan zaio futbola; auzoan hasi zen jokatzeko eta gero 10 bat urte egin ditu federatuta, eta beste bi eta erdi nesken entrenatzaile. "Ez dut gogoratzen futbol bako bizitarik", esaten du. Hainbeste urte eta gero, orain nesken taldea entrenatzeari utzi eta atsedentxo hartzea erabaki du.

— Zer da nesken futbol talde baten jokatzeko eta gero entrenatzea?

— Edozein talde-kiroletan moduan, gauza onak eta txarrak ditu. Baina talde-kirola izanik gehienbat gauza onak ditu: asko ikasten da, bereziki, gauzak baloratzen. Ordu piloa elkarrekin, une onak eta txarrak. Horrez gain, jendearekin lortzen duzun hartumana konpromiso handikoa dela uste dut. Orduetik hona lagun handiak egin ditut.

— Zein ibilbide egin duzu futbolean?

— Auzoan hasi nintzen jokatzeko, gero eskolan jarraitu nuen, jolas orduetan eta, orduan ez zegoen besterik... Lehenengo talde federatua Rosi Katangak eta Román Lopezek sortu zutenean irten zen (16-17 urte nituen), eta jakiteaz bat izena eman nuen. Orduan modan zegoen futbola, pentsa, talde bat sortzeko 20-22 jokalaririk nahikoa bada, orduan 40 bat elkartu ginen. Bi eguneko-edo probak egin

zizuten jokalariek aukeratzeko eta horrelaxe sartu nintzen.

— Zein postutan jokatu izan duzu? Zein leku gustatzen zaizu gehien?

— Aurrean hasi nintzen eta atezainaren lekuan izan ezik, beste guztietan jokatu izan dut. Dena dela, gehien gustatzen zaidan lekua erdi-laria da. Hortik pasatzen da dena, hortxe lotzen da guztia, goikoa behekoarekin. Politena da baloia hanketan izatea eta baloia jokatzeko, eta hori erdialdetik aurrera egiten da. Edozelan ere, jokatzeko gero, berdina zait non, garrantzitsuena jokatzeko da, ez besterik.

— Taldearekin gogoratzen duzun unerik onena?

— Askok. Baina gehienbat liga irabazi genueneko garaia nabarmenduko nuke, orain dela sei bat urte; izan ere, hori lortzeko sekulako lana egin genuen. Arazoa da nesken taldean oso zaila dela taldea egi-

tea: talde polita duzunean (10-12 jokalarirekin-edo) gerta daiteke hurrengo urtean bos-tek edo seik taldea uztea, eta orduan berriro hasi behar da. Orduan 15-16 neskako talde finkoa elkartu ginen eta 4-5 urte elkarrekin izan ginen. Gainera, guretako oso adin ona izan zen: heldutxoagoak ginen... Baina, bereziki, lan handia egin genuen, Juanina Garai etorri zen, sekulako entrenamendu piloa egin genuen, ligan ere hiru entrenamendu egiten genituen astean... Eta horren emaitza liga irabaztea izan zen. Eta horrek guztioi poz izugarria eman zigun, badakizulako zenbat kostatu zaizun hori lortzea. Urte askoko lana izan zen eta lan oso gogorra, gainera.

— Hortaz, nesken talde baten arazo gogorrena taldea egitea da?

— Nik hemen ikusi dudanez, behintzat, bai. 14-15 urterekin oso jokalaririk onak daude eta ez dute futbola 18 urte arte-edo uzten. Baina 18 urte egitean, ikasketekin eta abar, futbola laga egiten dute askok.

— Mutilen taldeetan ere gertatzen da hori?

— Bai, baina gutxiago igar-

tzen da mutil gehiago dagoelako. Gainera, mutilak adinaren arabera daude banatuta eta, adibidez, jubentiarako jokalaririk barik geratu bazara kade-teak har ditzakezu, edo beste edozein...

— Nesken futbol ligan zenbat maila daude?

— Bi bakarrik: erregional maila (Gipuzkoan) eta nazional maila (Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa; Araban ez dago talderik). Erregional mailan, esaterako, aurtun 33 talde ibili gara, hiru multzotan banatuta, hamaikana multzo bakoitzak. Edozelan ere, entzun dut ohorezko maila sortzekotan ere badabiltzala, baina hori horrela izanez gero ere, guk ezin izango genuke jokatu, ez dugu dirurik...

— Izan ere, zuena zaletasun hutsa da, ezta? Hor ez dago dirurik...

— Nik



« Mondragoen, diru mordoa dago, baina kirolari ez zaio ematen aparteko laguntzarik »

# ia behar du nesken futbolak »

ez dut ikusi horrelakorik, ez. Udalak dirulaguntza ematen digu eta taldeak ere ematen du zerbait, baina guk ez dugu ezer kobratzen.

Hala ere, gauza bera ikusten da bestelako kiroletan ere. Hemen, Mondragoen, diru mordoia dago, baina kirolari ez zaio ematen aparteko laguntzarik: ez futbolari, ez errugbiari... eta nik uste dut Arrasaten hori baino ahalmen handiagoa dagoela.

— **Eta, bestela, zelan ikusten duzu nesken futbola?**

— Guztiz geratuta dago; nire ustetan txapelketa bera ere

oso gaizki antolatuta dago. Hogeita hamahiru talde gauden, eta hamaikako hiru talde egiten dituzte, baina maila kontuan hartu barik; ingurukoak izatea bakarrik hartzen dute kontuan. Hortaz, txapelketa guztia inguruko taldeekin jokatzeko igarotzen duzu, beti talde berberekin eta, gainera, maila aldetik sekulako desberdintasunak izaten dira. Nik uste dut gaur egun hainbeste talde egonda beste modu batean antolatu beharko litzaitekeela; esaterako, bi maila egin ahal dira.

Oraindik ere bultzada handia behar du nesken futbolak.

Eta ez du balio esatea, askok esaten duten moduan, oraindik ere berritasuna dela. Dagoeneko aitzakia horrek ez du balio.

— **Zelan ikusten duzu etorkizuna?**

— Ez dut etorkizunik ikusten, orain arte ere ez dudalako inolako mugimendurik ikusi. Guztia dago antolatuta, neskak badaude, eta kito. Ez dut uste inor arduratzen denik horretaz. Nik uste dut ondo geratzen dela nesken talde bat izatea, baina besterik ez.


— **Hiru urte entrenatzailer moduan. Zer moduz?**

— Oso gogorra izan da. Lehenengo urtean mailaz jaitzi ginen eta bigarren urtean taldea desegin egin zen; neskak heldu egin eta gehienek futbola utzi zuten, hortaz, 15-16 urteko neskatilekin hasi nintzen, eta hori oso-osoa zaila eta gogorra da.


— **Orain atsedena...**

— Bai, nekatuta nago. Urte asko dira, lan handia, askotan bakarrik zaude guztia aurrera eramateko eta hori gogorra da; atsedena behar dut. Baina ez dut futbola utziko. Futbolak guztia eman dit: bizimodua, ohiturak...

## Busti zaitetz Arrasate irratian!!!



## Olaizola II.a eta Barriola nagusi San Juan egunean



Jende ugari bildu zen Uarkapen jokatu ziren pilota partiduez gozatzeko.

Aurtengo San Juan Egunean, aurreko urteetan legez, Arrasateko Uarkape pilotalekuan profesional mailako partidak ikusi ahal izan genituen.

Partidu nagusian Mikel Unanuek eta Jokin Errastik Aimar Olaizolaren eta Abel Barriolaren aurka neurtu

zituzten indarrak. Nafarrek irabazi zuten (22-13).

Unanuek eta Errastik ondo hasi zuten norgehiagoka eta konturatu orduko 5 eta 1 aurreratu ziren. Olaizola II.ak eta Barriolak ez zuten amorerik eman eta aurre hartu zuten (7-5). Gero, Unanuek eta Errastik zazpina berdin-

du zuten eta horixe izan zen partidako berdinketa bakarra. Hortik aurrera, nafarrek, Olaizola eta Barriolak, agindu zuten.

Abel Barriolak mendean hartu zuen Jokin Errasti atzeko koadroetan eta Aimar Olaizolak aukerak ondo aprobetxatu zituen. Hala, tantorik

politenak Aimarrek egin zituen.

Unanuek eta Errastik, berriz, ohi baino huts gehiago egin zituzten.

Uarkape pilotalekuan egindako beroak ere ez zien pilotariei lagundu, baina gazteak hobeto moldatu eta nagusi izan ziren.

## Aupa San Josepe

Datorren urtean, San Josepe taldea Mondraren ohorezko infantilen taldea izango da.

Aurten denboraldi bikaina egin dute eta garaipen garrantzitsuak lortu dituzte. Abetxukoko txapelketan bigarren izan ziren eta Laudiokotan laugarren.

Uztailaren 8tik 15era bitartean Gasteiz Cup txapelketa jokatu dute eta bertan gus-tora aritzea espero dute. Ea emaitza on bat lortzen duten.



# Zuri Baltza onena Arrasateko V. Herri arteko txapelketan

Euskal Herri osotik etorritako lau talde izan genituen zapatuan lehian Arrasateko Jokin Zaitegi plazan: Iruñeko Oberena, Bilboko Zuri Baltza, Baionako taldea eta Arrasateko San Andres.

Partiduak arratsaldeko 16:30ean hasi ziren eta hiru bat orduz jardun zuten lehian. Bost minutuko partida lasterrek jokatu zituzten Match Schveningen modalitatean, hau da, ligaxka moduan.

Talde bakoitzak lau xakelari zituen eta Arrasateko San Andres taldean Josu Tornay, Isidro Ruiz, Luis Ángel Ortega eta Txema Hernando aritu ziren. Lan bikaina egin zuten eta azken une arte irabazteko lehian izan ziren Zuri Baltza-



## Triala Udalan

Datorren domekan, uztailak 1, triala jokatuko da Udalan 10:00etatik aurrera. Euskadiko txapelketarako baliaigarria izango da, eta senior, junior, gazte, beterano eta amateurrek esku hartuko dute. Orain arte azaroan egin izan da proba, baina aurten uda hasiera-

ra aurreratu dute.

### HOGEI LAGUNETIK GORA IZANGO DIRA

Ander Landaluzek erabaki du enduro modalitatean soilik esku hartuko duela, hortaz, aurten ez da Arrasateko ordezkariirik izango.



rekin. Azkenean bilbotarrak nagusitu ziren 36 punturekin. Arrasateko San Andres bigarren sailkatu zen hogeita hamaikarekin. Sailkapena honela geratu zen:

1. Zuri Baltza: 36 puntu
2. San Andres: 31 puntu
3. Baiona: 14 puntu
4. Oberena: 13 puntu

### Jokalari onenak:

Patrick Paraire (Baiona)  
Carlos Varas (Zuri Baltza)  
Bi jokalariek hamaikana tanto lortu zituzten.

Txapelketa bukatu ondoren, lehia kontuak alde batera utzi eta xakelari guztiek elkarrekin afaldu zuten.

## Aperribai, punta-puntako kirolaria

Jende ugari jokatu zuen domekan Donostiako triatloia. Guztira 450 lagun inguruk esku hartu zuten eta Jon Aperribai mondragoetarra hamabigarren izan zen. Jonekin batera izan ziren triatloi taldeko lagunek ere proba bukatzea lortu zuten nahiz eta sailkapenean atzerago

geratu:

Zuhaitz Ezpeleta (46), Alejandro Altuna (101), Josu Eizagirre (211) eta Zigor Jiménez (278).

Bihar, zapatua, Lekeition izango dute proba, 16:00etan: 750 metro igerian, 23 kilometro bizikletan eta bost kilometro lasterka.



## Deikunde Barrutia Loramendi Kirolak dendarakue

Hogeita hamabost urte dittuen dendarixari ez jako energixarik falta. Kirola egitteko biher dan erropa eta material artien egitten dau lan eta ahal dauenien dantzan egittera jueten da.

Bere lana eta herrixe gustetan jako eta bizitzeko munduko lekurik onena Mondragoe dala esan dusku.

### -Esaidazu guzur bat.

Ez jat gustetan dantzan egitterik.

### -Amets bat.

Zoriontsu izetie.

### -Amesgaizto bat.

Ez dot eukitten.

### -Egin dozun azken biajie.

Tenerifera.

### -Txartel horixe, zeñiñi?

Epailliei; emakumien tratu txarren kasuetan zigorrak gogortu daixien.

### -Gorrixer?

Aznarrei.

### -Film bat? Liburu bat? Disko bat?

*Chocolate* / Lucia Echeverriaren edo Pablo Coeloren edozein/ Lenny Cravitzten edozein.

### -Gustora egitten dozu zeure lana?

Bai...

### -Dendari ez bazitza, zer izengo zitzake?

Dekoratzailie edo diseñatzaillie, artien gaiñeko zerbait.

### -Animalixe izatekotan, zer?

Txorixe.

### -Drogak legeztatuko zenittuzke?

Batzuk bai.

### -Eta prostituziñue?

Bai.

### -Tabernetako poteue ala diskotekak?

Bixek.

### -Etxeko zapatillek ala zapatak?

Bixek.

### -Zer gustetan jatzu Arrasatetik?

Nahiko ondo dago. Alde zaharra, Monterron, Santa Barbara... dan-dana.

### -Alkate izengo bazitza, zer hobetuko zeunke?

Etxebizitzen preziue, aparkalekuek... batez be etxebizitze preziue.

### -Eta lehendakari izengo bazitze?

Ardura haundixe deitxot. Ez dot neure burue kapaz ikusten.

### -Bizio bat?

Eskietie.

### -Zer deitxozu *Arrasate Press Goienkaria* barrun sartziari?

Neri ondo.

### -Zer gehittuko zeunke *Arrasate Pressen*? Eta zer kenduko zeunke?

Dagoen moduen ondo dagu. Horrela itxiko neuke.

### -Gustoko mendi bat?



"Kirola asko gustetan jat, eta batez be, eskietie. Nere lanak aukera emuten dust kirola egitteko"

Udalatx.

### -Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?

Denbora laburrerako bada, Londresera, bestela Arrasate.

### -Zure bizitzan ezagututako pertsona interesgarri bat.

Maite Durana.

### -Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Dalai Lama.

### -Desleiala izetekotan, zeñekin?

Zinedine Zidane futbol jokalarixekin.

### -Telebisiñoko programa bat? Irratsaio bat?

Telebisiñue gutxi ikusten dot; betibe *Sorgiñen Laratza* ikusten dot. Eta irratirik ez dot entzuten, musika entzuten dot gehixenbat.

### -Baiñujantzi marka bat.

Lenita.

### -Zertan gastauko zeunke dirue?

Gutxi bada etxie konponketan eta asko bada biajietan.

### -Jasaten ez dozun zerbait.

Norbaittekin susmo txarra eukittie.

### -Uretako kirola ala mendixe?

Neguen edurre eta udan ure.

### -Motxilak ala poltsak?

Poltsak.

## Dantza, kantu eta musika jaia



Ekainaren 29an, egubakoitza, jaialdi berezia egingo dute musikarekin zerikusia duten herriko hainbat talde eta elkarteak. Jaialdia Monterron parkean izango da 19:30ean, Arrasate Musikalen eskutik.

Musika akademia horretako bi ikasleri, Nerea Mondragoni eta Xabier Erañari

hain justu, bururatu zitzaie jaialdia egitea. Era horretan, San Juan jaiei agur esateko modu ederra prestatu dute.

Goikobalu Txiki eta Gazteren emanaldiarekin hasiko da festa. Segidan, Arrasate Musikaleko talde instrumentalen saioa izango da. Dantzarentzako tartea ere izango

da, jakina, Arrostitzeko dantzarien eskutik. Gero, Tronbunba tronboi taldeak alaituko ditu bazterrak; horren ondoren, herriko trikitilari eskolakoek fandangoa, arinarina eta kalejira eskainiko dizkigute eta Goikobalu Abesbatzak bukatuko du jaialdia.

## Margo lehiaketako irabazleak

Aitor Lajarin, Iban Caballero eta Oxel Zabalo izan dira Tamayo paper-dendak antolatutako margo lehiaketako irabazleak, helduen, gazteen eta umeen kategorietan hurrenez hurren.

Aitorrek Ibai Arte merkataritza elkarteak emandako 100.000 pezeta eta liburua jaso zituen, eta beste bi irabazleek erosketak egiteko txartel bana, Ibanek 25.000 pezetakoa eta Oxelek 10.000koa. Horiez gainera, kategoria bakoitzean beste bost sari eman zituzten, horietako batzuk Euskadiko Kutzaren eta udalaren eskutik.

### HOGEITA HIRU LAGUN

Ekainaren 16an egin zen aire zabaleko margo lehiaketa. Baldintza bakarra Arrasateko alde zaharreko txokoak irudikatzea zen. 23 margolarik esku hartu zuten eta guztien lanak joan den egubakoitza arte izan ziren ikusgai Monterrongo aretoan.

## J. L. Arrietaren erakusketa

Juan Luis Arrieta margolariak erakusteko gertu ditu 25 bat margolan. Harresi aretoan izango dira ikusgai uztailaren 13tik 25era bitartean. Urte eta erdi dela egin zuen aurreko erakusketa eta orain hurrengo ikusiko ditugun lanak epe horretan egindakoak dira, lehenagoko beste batzuekin batera.

Erakusketa horretan Juan Luisek denetarioko gaitako margoak erakutsiko dizkigu: marinak, erretratuak, Arrasateko bazterrak, natura hilak eta irudiak.


## Udarako irakurketa onenak

Udako oporrak hasi dira, ume eta gaztetxoendako, behintzat; gainerakoendako ere laster etorriko direla-eta, aurrean ere Debagoieneko udal liburutegietako arduradunek oporrerako liburu gomendagarrien gida argitaratu dute eta Arrasateko liburutegian eskuratu ahal izango duzue.

### MOTA GUZTIETAKOAK

Eskuorri horretan euskarazko zein gaztelaniazko liburu zerrendak aurkituko dituzue, adinka sailkatuta, irakurle hasi berriendako ipuinetatik helduen liburuetaraino.

Argitalpen horietatik gehienak atera berriak dira, baina badaude baita aski ezagun diren kla-



sikoak ere -*Printze txikia*, esaterako-; gainera, poesia, entse-

gua, eleberria... daude, zeinek bere aukera egiteko moduan.

MANOLO QUEVEDO (MARGOLARIA)

## «Ideiaz azkartasunez adierazteko aukera ematen dit pastelaren teknikak»

Donostiarra da jaiotzez Manolo Quevedo, baina Arrasate du bizileku 30 urte-tik hona. Margolaritza da bere mundua; jarduera horretan, Arrasate Margo Taldeko kide da eta eurekin batera zein bakarka erakusketak egin izan ditu. Joan den egubakoitza ezkerro, bere lan berrienak miresteko aukera dugu Harresi aretoan uztailaren 1a arte. *Pastela eta argia* du izena erakusketak. 18:00etatik 20:00etara dago zabalik; asteburutan, gainera, 12:00etatik 14:00etara.

— **Aurkeztu zuk zeuk erakusketa hau...**

— Hogeita hamabi bat margolan dira, azken hiru urteotan egindakoak guztiak; nire lan berrienak, hortaz. Teknikari dago-kionez, pastelak dira gehientsuak, baina akuarela bat edo beste ere badago. Gehienetan, lehen marrazkiak aire zabalean egin ditut, irudikatu gura nionari begira, eta gero tailerlean jarraitu izan dut.

— **Bakarka egiten duzun bigarren erakusketa da. Orain arteko esperientzia zelakoa izan da?**

— Aureko erakusketak oso erantzun ona izan zuen, eta zai nago ea honakoarekin zer gertatzen den. Publikoa epaile zorrotza da, eta bere esanak agintzen du.

— **Olioia duzu espezialitate. Zergatik teknika aldaketa hori?**

— Egia da betidanik olioia landu izan dudala. Baina pastelak eta akuarelak beste aukera batzuk eskaini didate. Olio egindako margolan batek denbora luzea behar du, aldi oro lehortzen utzi behar duzualako gero jarraitu ahal izateko, eta hori ez da gertatzen akuarelarekin eta pastelarekin. Batik bat, daukadan ideia azkartasunez adierazteko teknika hauek ematen



didaten aukera gustatzen zait, berezkotasuna alegia.

— **Desabantailarik badute teknika horiek?**

— Marrazterako orduan baita margoarekin ere kontu handiz ibili beharra dago. Marrazkia egiterakoan, fina eta delikatuia izan behar duzu. Margolariaren aldetik, garbitasun eta xamurtasun handiagoa eskatzen dute. Bestalde, teknika hauek duten berezkotasunak badu bere alde txarra: marrazten duzun lehenengo gauza da gelditzen dena, ez dago aldatzerik.

— **Zure erakusketak "Pastela eta argia" du izena. Zergatik argiaren erreferentzia hori?**

— Argia oso kontzeptu indartsua da erakusketan. Argiak kontraste markatuak egiten ditu margolan hauetan guztietan. Zenbaitzuetan, paisaia osoa margotzea bai-

no, argiak detaile batean egiten zuen efektua margotzea gurago izan dut, eta horretan islatzen da argiaren eragina.

— **Paisaiak dira hemen gai nagusi...**

— Bai, betidanik gustatu izan zaizkit. Aukera zabalen erakusgarri da natura. Jotzen duzun lekura jota, naturan berehala aurkituko duzu margotzeko zer edo zer. Paisaia, eta batez ere Euskal Herrikoa, barietate eta aberastasun handikoa da. Horren barruan, askotan zeruak, lainoak... irudikatzen ditut, mugimendu hori harrapatu guran, eta pastelak zeru horietan dagoen kolore eta argi kontrasteen aberastasuna irudikatzen uzten dit. Horrela, une konkretu baten inpresioa adierazten saiatzen naiz. Baina paisaiez gainera, giza irudia ere irudikatzen dut eta erakusketa honetan badaude horren eredu batzuk, gutxi badira ere. Oraintxe dihardut horretan sakontzen.

« Berezkotasunak badu bere alde txarra: marrazten duzun lehenengo gauza da gelditzen dena, ez dago aldatzerik »



# Irratian udako programazioa hasiko da astelehenean

## Udako Koktelera Egunero, 09:30ean

Astelehenean, uztailek 2, udako irratsaioak hasiko dira Arrasate Irratian. Betiko moduan goizeko 09:00etan hasiko da programazioa. Ordu horretan albistegia izango da. Gero, Udako Koktelera izeneko tarte berria hasiko da. Efemerideek eta albiste bitxiak irekiko dute saioa eta goizeko 10:00ak inguruan *Zirt eta Zart*-en eztabaidak izango dira. Egunero, gai baten gainean iritzia emango dute *Zirt eta Zart*-ek.

Oporrak ate joka izanik, bidaien gaineko kontakizunak ere izango dira. Astelehenean bidaia baten gaineko elkarrizketa izango da eta eguaztenetan Euskal Herriko herri bat bisitatuko dugu. Astelehenean, esatera-

ko, iaz Finlandiara eta Errusiara egindako bidaia kontatuko digu Maider Egüsek.

Zelan ez, kalera ere irtengo gara eta zuzen-zuzenean kalean gertatzen ari denaren berri emango dugu.

### 'GRAN HERMANO' ETA EDU ABASOLO


Bukatu da *Gran Hermano* eta saio hori barru-barrutik bizi izan duen lagun batekin berba egiteko aukera izango dugu. Astelehenean, hilak 2, goizeko 10:25ean Edu Abasolo atxabaltarra izango da Arrasate Irratian.

## 'Jai Dagin' Haika Aizpuruarekin

Eguerdiko 12:00etan Haika Aizpuru jarriko da Arrasate Irratiko mikrofono aurrean. Udako musika lagun duela, *Jai Dagin* izeneko irratsaioa egingo du orain arte *Bi zoro eta zu* egin duen esataria.

Uda partean jai asko izaten delata, jaien berri emango du eta lehieketa ere izango da. Irabazleek udako kantuekin osatutako diskoa irabaziko dute.

Ez ahaztu, 12:00etatik 13:00ak arte egunero.



### Sariak

**Microsoft Office 2000ren euskarazko bertsioak ditugu zotz egiteko. Liburu bat gura izanez gero, dei egin 943 71 17 31 telefono zenbakira.**

Izen-deiturak: .....  
Tel.: .....

Bidalari gurea: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratia: 943 71 17 31.

### Sariak

**Xuxen, euskarazko zuzentzaile ortografikoa, ere badugu entzuleen artean banatzeko. Horretarako nahiko da telefono dei bat egitea.**

Izen-deiturak: .....  
Tel.: .....

Bidalari gurea: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratia: 943 71 17 31.

**ERREFORMAK S.L.**  
Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki, 3 behe (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20

**Metal aroztegia eta PVC**  
Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**  
Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua  
**Osagarriak**  
Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkia

*Jose Antonio*

**ILE APAINZAILA**

*Jai zoriontsuak izan!*

Otalora Lizentziatua, 22 behea  
Tel.: 943 79 42 10

**Txitxinpe**

**Berezitasunak**  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel: 943 79 67 76



**N**ahiz eta mundua geroago eta modernoagoa izan, gizakiok ez gara hain-

beste aldatzen erakusten duen argazkia da oraingo astekoa. Izatez, 1934. urtekoa da, baina koloreztatuz gero, batek baino gehiagok pentsatuko luke duela gutxikoa dela. Izan ere, orain moduan, orduan ere ahal zuenak, behintzat, itsaso aldera egiten zuen beroa heldu bezain pronto. Akaso ez orain bezain urrutira, baina bai herritik kanpora eta freskotasun bila.

Donostian dago- aterata argazkia. Ezkerraldean dagoen emakumea Felisa Ibañez de Opakua "Txomin Txiki" da eta bere laguna, berriz, Benedikta Ezkurra "Bene".

-----  
*Argazkia eta berriemailea:  
Arantza Alonso "Txomin Txiki".*



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

*Kalitateak mugarik ez*



## ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, PVC, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabilioia  
Tel.: 943 77 11 30  
ARRASATE



Eskerrik asko San Juanetan gurekin izan zareten bezero, kolaboratzaile, irakurle eta herritar guztioi!!



**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak



# Aukera hau galdu behar duzu ?

## Opel Corsa Berria

1.410.000 pts\*.

### OSAGARRIAK

- 1.2 16V 75eko Zaldi Indarreko motorea.
- Gidariarentzako airbag-a.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Segurtasun-gerrikoak pretentsoreekin.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Funtzio anitzeko pantaila.
- Mantenimendu azterketaren adierazlea.
- 30.000 Km-eroko mantenimendua.
- Faro piztuentzako alarma.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermearekin.



## Opel Astra

1.804.000 pts\*.

### OSAGARRIAK

- 1.6 84ko Zaldi Indarreko motorea.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermearekin.

## Opel Zafira

2.643.000 pts\*.

### OSAGARRIAK

- 1.6 16V 100eko Zaldi Indarreko motorea.
- Zazpi leku.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak aurrealdean.
- Kanpoko atze-ispilu elektriko eta termikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko larruzko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermearekin.

## Opel Vectra

2.450.000 pts\*.

### OSAGARRIAK

- 1.6 16V 100eko Zaldi Indarreko motorea.
- Aire girotua.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak aurrealdean.
- Kanpoko atze-ispilu elektriko eta termikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioarengatiko zulaketaren aurkako 10 urteko bermearekin.

www.opel.es

OPEL CREDIT



1,2,3 aukerak: Beti auto berria edukitzeko modurik errazena.

\* PVP fabrikatzaileak gomendatutako salneurria penintsulatan eta Balear Uharteetan. Prezioak barne hartzen ditu garraioa, BEZ eta matrikulazio zerga. Prever plana berundun gasolinako autoentzako eta promozio-deskontuata auto hauetan: Corsa Club 1.2, hiru ate 16V 75hp, pakete elektrikoarekin (8.474 euro), Astra Club 1.6 hiru ate 8V 84hp (10.842 euro), Vectra Comfort 1.6 16V 100hp (14.725 euro) eta Zafira Comfort 1.6 16V 100hp (promozio-deskontuarekin) (15.885 euro).

OPEL

# TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA

Zerbitzu Oficiala

## TAKOLO AUTOAK

Araba Ertobidea. Tfnoakl. 943 77 30 10. ARRASATE-MONDRAGON